



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko apirilaren 25a

38. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da harremanetan jar dadin Altsasuko Udalarekin, pasadizokoen aterpetxea aldatzeko beste toki batera, alegia, ematen duen zerbitzuari hobeto egokitzen zaion toki batera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait erabaki har ditzan 1998ko lehiaketan emandako frekuentzia modulatuak irratiz lizentzietan dagokienez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tasa berriak aztertu eta proposa ditzan Nafarroako hondakinen partzuergoan, gastuen banaketa bidezkoagoa egiteko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez dezan laguntza publikorik eman Huarte familiaren arte bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko, eta berrazter ditzan Nafarroako Unibertsitatearekiko eta beste merkataritza enpresa batzuekiko trataera eta harreman fiskalak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, Libanon bizi diren errefuxiatu palestinarren egoerari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Nafarroako ijito komunitatearen eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzesten baitira foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorreren aurkako erasoa eta PSE-PSOEren Elgoibarko egoitzaren aurkako atentatua. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearren gaineko Foru Legeari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (13. or.).
- Galdera, 2008-2009 ikasturterako eskolatzeko prozesuari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea garatu eta betetzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko nola bermatu behar duen Nafarroako Gobernuak uneoro eta zentro publiko guztietan metodo antisorgailuen eskaerari modu egokian erantzun ahalko zaiola, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko errepide sareko zenbait bidegurutzeren arriskua murrizteko Nafarroako Gobernuak dituen proiektuei buruzkoa, José M.^a Vázquez Royo jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, jakiteko zein egoeratan dauden Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalekin Nafarroako Gobernu egiten ari den negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatze aldera. Ana Figueras Castellano andreak egina (18. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ubarroiak eta lertxunek eragindako arazoak konpontzeko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiek azientaren aurka eginiko erasoek sortutako arazoak konpontzeko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Nekazaritzako sektorea zeharo aldatu da azken hogeitaz urteotan, errotik eraldatu baitira haren egiturak eta ekoizpen-sistemak, hobekuntza genetikoari eta nekazarien eta abeltzainen profesionalizazioari dagokienez. Hori guztia gertatu da nekazarietako eta abeltzainetako inbertsio handiak egin dituztelako produktibitatea eta lehiakortasuna hobetze aldera merkatu gero eta irekiago eta globalizatuago batean, Merkataritzako Mundu Erakundeak egindako presioaren ondorioz prezioen liberalizazioa lerratzeko joera handia duen merkatu batean.

Halere, eta nekazaritzako produktibitatearen hobekuntza gorabehera, nekazarietako eta abeltzainetako prezioen krisi eraman ezina bizi dute; horren ondorioz, nekazaritzako ekoizpen ugartan –untxi, txerri, haragitarako ardi ekoizpenetan eta abar– abeltzainari jatorrian ordaintzen zaizkion prezioek ez dituzte ekoizpen-kostuak berdintzen, eta, halatan, Nafarroan estrategikoa izaten jarraitu behar duen sektore horrek galera ekonomikoak ditu.

Nekazaritzako sektore batzuetako errentagarritasunaren galera horren eraginez, kontsumitzaileek ikusten dute nekazaritzako elikagaien prezioek etengabe garestitzen dutela erosketa-saskia. Lehen mailako aratxearen prezioak, adibidez, % 0,7 jaitsi dira jatorrian 2004tik 2007ra bitarte, baina kontsumitzailearentzat % 7 igo dira bitarte horretan. Jatorrian 3,48 euroan ordaintzen den produktua 14,32 euroan saltzen zaio kontsumitzaileari. Jatorriaren eta helmugaren arteko marjina % 239tik % 311ra igo da, opakutasun erabatekoarekin igo ere, gisa horretako egoerak ahalbidetzen baititu merkatuak, eta ez nekazarietako, ez abeltzainetako ez eta kontsumitzaileek ere ez dute ulertzen zer gertatzen ari den.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan, ondokoa helburu: Nafarroan gehien ekoizten diren nekazaritza eta abeltzaintzako produktuek jatorrian duten kostuaren eta prezioaren ezagutza gardenetik abiatuta, elikagaien banaketan parte hartzen duten katebegiek –handizkako merkatariek, txikizkakoek eta merkataritzako eragile handiek– produktu horiek kontsumitzailearen erosketa-saskira iritsi bitarte dituzten egiazko marjinak ezagutzea.

2. Nekazaritza arloko prezioen behatoki publikoak ondokoak jasoko ditu: nekazaritzako produktuen ekoizpen-kostu garbia, jatorrian duten pre-

zioa eta kontsumitzailearentzat duena, saltoki handiak, ertainak eta txikiak bereizita.

3. Nafarroako Gobernuak astero argitaratuko du informazio hori interneten, halako moduz non sektoreko eragileek eta kontsumitzaileek kontsulta

egiteko modua izanen baitute, merkatuari gardentasuna ematea helburu.

Iruñean, 2008ko apirilaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da harremanetan jar dadin Altsasuko Udalarekin, pasadizokoen aterpetxea aldatzeko beste toki batera, alegia, ematen duen zerbitzuari hobeto egokitzen zaion toki batera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita harremanetan jar dadin Altsasuko Udalarekin, pasadizokoen aterpetxea aldatzeko beste toki batera, alegia, ematen duen zerbitzuari hobeto egokitzen zaion toki batera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Europar Batasunaren arabera, “etxerik gabeko pertsona” izendapenaren barruan sartzen dira “bizitoki duina, egoera pertsonalari egokituia, iraunkorra eta bizikidetzako esparru iraunkorra ematen duena lortu edo kontserbatu ezin duten pertsona guztiak” sartzen dira.

Aipatu egoera horietan hainbat larritasun-maila aurki ditzakegu. Maila horiek, batez ere, administrazioaren laguntzekiko menpekotasunaren eta gizarte-bazterkeria eragin duten bizi-dinamismoen hausturaren arabera dira.

Estatistikaren ikuspuntutik, pertsonak pobrezia mugaren azpitik bizi dira baldin eta haien dirusarrerak ez badira iristen herrialdeko dirusarreraren batez bestekoaren % 50era. Erreferentzia hori erabiltzen da, adibidez, Nazio Batuen Erakundearen garapen programan, zeinetan hiru pobrezia maila definitzen baitira: aldizkakoa, orokorra eta muturrekoa. Muturreko pobrezia aurka jarduteko, beharrezkoa da foru nahiz udal administrazioen konpromiso instituzionala.

Cáritasen ustez, “etxerik gabekoen” fenomenoak hirian gertatzen da batik bat, gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino eta zenbait urtetik hona etorkin asko dago “etxerik gabekoen” artean. Egin diren azterlanen arabera, gizatalde horrek pobrezia pairatzen du, eta horretaz gain, askok familierikiko harremana hautsi eta mendekotasun handia dute, eta gaixotasun larriak izan ohi dituzte; hortaz, haien osasun egoera oso txarra izaten da, eta okertu egin ohi da, haien bizi-ohituren erruz.

Nafarroan alde nabarmena dago harrera zerbitzuen eskaintza publikoaren eta eskaintza pribatuaren artean. Pasadizoko aterpetxe batzuen egoera ez da, ez, onena.

Esaterako, Altsasuko pasadizokoen aterpetxea, zeinak eskualdeko eskariari erantzuten baitio, egoera penagarrian dago. Hortaz, beharrezkoa da foru administrazioaren parte-hartzea, behar den moduko zerbitzua emate aldera leku duin batean. Foru Gobernuak baditu, herrian bertan, zenbait lokal, zerbitzu hori leku hobeko batera

lekualdatu ahal izateko, eta horrenbestez, eskaria duen eta interes sozial ikaragarria duen zerbitzu bat eskaini ahal izateko.

Gizartean baztertuen dauden sektoreetako bati laguntza ematen dion eskualdeko zerbitzu batek, ordea, ezin du soilik edukizailerako laguntza jaso, gure ustez beharrezkoa baita edukiari ere erreparatzea, baldin eta bizi duen bazterkeria larriari lotutako arazo bereziak dituen sektore horri kalitatezko laguntza –berariazko beharrianen arabera– eman nahi badio.

Hori dela eta, honako hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du harremanetan jar dadin lehenbailehen Altsasuko Udalarekin, pasadizokoen aterpetxea tokiz aldatzeko, ematen duen zerbitzuari hobeto egokitzen zaion batera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat sina dezan Altsasuko Udalarekin, Altsasuko pasadizokoen aterpetxean eskariari egokitutako laguntza emate aldea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait erabaki har ditzan 1998ko lehiaketan emandako frekuentzia modulatu irratilizentziei dagokienez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait erabaki har ditzan 1998ko lehiaketan emandako frekuentzia modulatu irratilizentziei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunak, Legebiltzarreko Erregulamentuko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

ZIOAK

Aurrekariak.

Hamar urte beteko dira aurki frekuentzia modulatu irratilizentziak emateko azken lehiaketa egin zenetik, Nafarroan 1998an egin baitzen.

Lehiaketa hartatik bi emakida heldu ziren: bata, Nafarroako Unibertsitatearentzat –entitate pribatua da, merkataritza izaerarik gabea, nahiz eta lehiaketa merkataritza-irratientzat izan–, eta bestea, berriz, Net 21, S.L. merkataritzako konpainiarentzat –lehiaketa egin baino egun batzuk lehenago eratu zen, eta sozietatearen kapital aitortua 500.000 pezetakoa zuen–.

Legebiltzarreko Ikerketa Batzordea.

Nafarroako Parlamentuak bere garaian erabaki zuen ikerketa batzorde bat sortzea lehiaketaren bilakaera aztertze aldera, eta hartan agerian gelditu zen zer jokabide izan zuen administrazioak lehiaketa hartan. Legebiltzarrak, horren ondorioz, espediente haren ardura izan zuen kontseilari José Ignacio Palacios Zuasti jauna gaitzetsi zuen.

Administrazioarekiko auzi errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusian aurkeztua, eta lehiaketa baliogabetu zuen epaia.

1998ko lehiaketaren emaitza errekurritu egin zen, bai eta baliogabetu ere, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epai baten bidez; epaia irmo bihurtu zen gero.

Epaia betearazteko espediente eta epaiaren betearazpenerako intzidentea.

Nafarroako Gobernuak epaia betearaztea erabaki zuen, eta, hartara, administrazio-espediente bat abiarazi zuen Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, eta peritu-txosten bat egiteko agindu zion DOCKSA enpresari. Enpresa hori aukeratu izanak eta hark emandako ebazpenak eragindako eztabaida ezagunak dira, eta, hortaz, ez dago zertan haiek berriro errepikatu.

Nafarroako Gobernuak epaia betetzeko modua ere aurkaratu zen, eta Auzitegiak izapidera onartu du eta epaiaren betearazpenerako intzidentea abiarazi du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, une honetan abian dena.

Nafarroako Gobernuak epaiaren betearazpenerako intzidente hartan izandako jarrera eta eginkizuna objektiboki har daitezke NET 21, S.L.ren interes partikularren defentsa gisa.

Legebiltzarraren 2005eko erabakia.

Nafarroako Parlamentuak 2005eko abenduaren 23ko bilkuran erabaki zuen Nafarroako Gobernuaren premiatzea Euskalerrria Irratiaren administrazio-egoera legezta zezan; Euskalerrria Irratia izena du, hain zuzen ere, Iruñeko Komunikabideak, S.A.ren irratia, 1998ko lehiaketan hirugarren gelditu zenak. Lehiaketa balio gabetu egin zen gero, hain zuzen ere Iruñeko Komunikabideak, S.A.ren ekimenez emandako epai bidez.

Nafarroako Gobernuak ez du oraindik bete Nafarroako Parlamentuaren 2005eko erabaki hura, eta hortaz, mozio honen bidez erabaki hura bete dadin nahi dugu.

Egungo egoera.

Hamar urteotako gertakariak –eta bereziki ondokoek: NET 21, S.L. itxita dago aspalditik, eta, aldiz, 1998ko lehiaketan hirugarren gelditu zen irratia, lehiaketa errekurritu zuena, Iruñeko Komunikabideak, S.A. zabalik dago, eta langile asko ditu zerbitzuan– garbi erakusten dute lehena merkataritzaren ikuspuntutik bideraezina zela eta bigarrena, berriz, bideragarria.

Hona emakida horien egungo egoera: Nafarroako Unibertsitate pribatuaren irratia beste izen batez eta merkataritza izaerarik gabe emititzen du gaur egun, eta NET 21ek aspalditik ez du emititzen; NET 21 enpresa lehiaketa-prozedura –porrot– baten xede izan zen, eta haren lizentzia, doan lortu zuena, salgai dago diru-kopuru handi baten truke, nahiz eta, antza denez, ez duten saltea lortzen.

Emakidaren epea aurki beteko da.

2008ko uztailan beteko da 1998ko lehiaketan emandako lizentzien 10 urteko epea.

Emakida haiei eusteko, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak emakida luzatzeko erabakia espresuki hartzea.

Azaletik emandako arrazoi horiek agerian uzten dute ez dela bidezkoa Compañía NET 21, S.L.ren emakida luzatzea, gaur egun lehiaketa-prozeduran (porrot eginda) dagoelako, eta, gainera, irratia itxita duelako.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

1.- Amore eman dezan Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiaren betearazpenerako intzidentean.

2.- Onar dezan ezen, 1998ko lehiaketari eta ondorengo epai eta erabakiei jarraikiz, 1998ko lehiaketako bi lizentzietarik baten titulartasuna IRUÑEKO KOMUNIKABIDEAK, S.A.ri dagokiola, Euskalerrria Irratiari alegia.

3.- Subsidiarioki, eta betiere, erabaki dezan jatorrizko emakidaren 10 urteko epea bukatzen denean ez luzatzea Compañía NET, S.L.ren lizentzia, emakida hori epai bidez balio gabeturik baitago eta epea 2008ko uztailan bukatuko baita.

4.- Ez dezan inolaz ere baimenik eman NET 21, S.L.ren lizentzia hori beste entitate bati saldakion.

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tasa berriak aztertu eta proposa ditzan Nafarroako hondakinen partzuergoan, gastuen banaketa bidezkoagoa egiteko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tasa berriak aztertu eta proposa ditzan Nafarroako hondakinen partzuergoan, gastuen banaketa bidezkoagoa egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko; horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azken kostuei gehiago doitzen zaizkien tasa berriak aztertu eta proposa ditzan Nafarroako hondakinen partzuergoan, gastuen banaketa bidezkoagoa egiteko, udal bakoitzeko eta bakoitzerako hondakinen garraioaren egozpen partzialen irizpideak aplikatuta.

Zioen azalpena:

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko kontseilariak agerraldia egin zuen atzo Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioiko Batzordean, Nafarroako hondakinen plan zuzendariari buruz informatzeko.

Agerraldian, kontseilariak ondokoak azaldu zituen: Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren jardunerako ildoak, partzuergoa egun osatzen duten toki entitateak zein diren, nola funtzionatzen duten eta zer irizpide eta tasa aplikatzen ari diren.

Orobat informatu zuen ezen, gaur arte, Tuterako udalerrian dagoen El Culebreteko planta dela

funtzionatzen ari den biometanizazio planta bakarra eta, horrenbestez, Nafarroan hondakinak birziklatzen dituen bakarra.

Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren funtzionamendua azaltzean, berriz, partzuergoaren aurrekontua azaldu zuen, eta ondokoa nabarmendu: aurrekontuaren zati handi bat hondakinak garraiatzera bideratzen da, gaur egun El Culebreteraino, eta etorkizunean –zehaztu gabe dago noiz– aurrena transferentzia planta edo gunetara, hurrena El Culebreteko biometanizazio plantara eta, azkenik, Carcarko plantara, baldin eta akordio bat lortzen bada, alternatiba bat aurkitzen bada edo eremuen araberako banaketaren bidez egiten bada.

Bukatzeko, Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren dirusarrerei dagokienez, kontseilariak batzordean informatu zuen aplikatzen ari zen tasa Nafarroako bizilagun guztientzat bakarra zela, hondakinak sortzen diren tokia gorabehera.

Egun planta bakarra dago Foru Komunitatean hondakinak biometanizazioaren metodoaren bitartez birziklatzeko, eta sistema horrek ez du betetzen zuzentzearen ingurumen-printzipioa; izan ere, hondakinak 200 kilometrotik gora lekualdatu eta garraiatzen direnez zenbait kasutan, hondakinak ez dira tratatzen ahalik eta jatorritik gertuen; oraindik ere justifikaezinagoa da tasa bakarra aplikatzea Nafarroako biztanle guztiei.

Azken horrek urrundu egiten du erabakia ekitatearen printzipiotik, eta ez du kutsatzen duenak ordaintzearen –eta hortaz gehien kutsatzen duenak edo birziklatze-kostu handiena duenak gehien ordaintzearen– disuasio-osagai ezinbestekoa.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua (Toki Administrazioiko Departamentua) premiatzen du azken kostuei gehiago doitzen zaizkien tasa berriak aztertu eta proposa ditzan Nafarroako hondakinen partzuergoan, gastuen banaketa bidezkoagoa egiteko, udal bakoitzeko eta bakoitzerako hondakinen garraioaren egozpen partzialen irizpideak aplikatuta.

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten baitio Nafarroako Gobernuari Osasun Departamentuak egiten duen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren kudeaketa txarra dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Odol-transfusioaren beharrak ez du etenik, eta hainbeste transfusio egiten da non beharrezkoa baita bermatzea haren kalitatea eta segurtasuna.

Odolaren kalitatea eta hornidura uneoro eta jarraitutasunez bermatu beharra dago.

Onetsi diren dekretuek ondokoa dute helburu: giza odolaren eta odol-osagaien segurtasun eta kalitate arauak ezartzea giza osasunaren babes maila handia bermatzeko, eta, horren kariatara, odola eta haren osagaiak lortu, prestatu, kontserbatu, banatu, hornitu eta terapian erabiltzeko gutxieneko betekizunak eta baldintzak ezartzea, hala nola odol-transfusioen zentro eta zerbitzueta-ko langileei, tresnei, materialei eta lokalei buruzkoak.

Nafarroan ez dira betetzen ez irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretua, ez 9001-2000 UNE-EN-ISO araua, ez Transfusioak Kreditatzeko Batzordeak agindutakoa, ez eta, horrenbestez, arestian adierazitako helburuak ere.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten dio Nafarroako Gobernuari, Osasun Departamentua Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa gaizki kudeatzen ari baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretua bete dezan, bai eta 9001-2000 UNE-EN-ISO araua eta Transfusioak Kreditatzeko Batzordeak agindutakoa ere.

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bi hilabeteko epean zerga iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, zerga iruzurraren kontrako plan berria taxutzeko eskatzen da.

Zioen azalpena

Orain dela gutxi, ezagutzera eman dira zerga iruzurraren kontrako 2003tik 2007ra bitarteko pla-

nari esker lortu diren emaitzak. Berreskuratu den diru-kopuruaz eta UPN-CDN gobernuak horren aurrean erakutsi duen bere buruarekiko gogobetetasunaz haratago, herritarrak, oro har, seguru daude, eta parlamentu-talde hau bat dator haiekin, gobernuak konpontzeko duen arazo bat dela zerga iruzurrarena. Izan ere, gutxi gorabeherako kalkulurik ere ez da egin, detektatu gabeko iruzurra, guztira, zenbatekoa izan daitekeen jakiteko.

Justizia nahiz ekitate arrazoiek eta diru-bilketa optimizatzeak gidatuta, plan berri bat egin beharko litzateke, lehengo baina aurreratuagoa eta handinahiagoa; plan berriak, egin beharreko estimazioak egiteaz gain, erdietsi beharreko helburuak ezarri beharko litzuzke, egungo gobernuaren boluntarismoa gaindituz.

Mozioaren testua

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerga iruzurraren kontrako plan berri bat taxu dezan bi hilabeteko epean; plan berri horretako jarduketa ildo estrategikoen bidez helburu handinahiak ezarriko dira, iruzurrezko portaerak desagerrarazteko aurrerabidezko proposamenak eginen dira, tributuen arloko betebeharrak gizarte-dualtasuna ekidinen da eta areagotu eginen dira beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak.

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ez dezan laguntza publikorik eman Huarte familiaren arte bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko, eta berrazter ditzan Nafarroako Unibertsitatearekiko eta beste merkataritza enpresa batzuekiko trataera eta harreman fiskalak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ez dezan laguntza publikorik eman Huarte familiaren arte bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko, eta berrazter ditzan Nafarroako Unibertsitatearekiko eta beste merkataritza enpresa batzuekiko trataera eta harreman fiskalak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

María Josefa Huarte Beaumontek dohaintzan emanen dio Nafarroako Unibertsitateari arte garaikideko bere bilduma pribatua, zeina Estatuko garrantzitsuenetarikotzat jotzen baita. Horrenbestez, Félix Huarte industrialariaren alabaren ondare artistikoa (berrogeita hamar bat artelan, Picasso, Oteiza, Rothko, Palazuelo edo Chillida bezalako artistenak), Iruñeko zitudadelako arte garaikideko zentro jaiogabearen ernamuina izan behar zuena,

Nafarroan geldituko da, baina ezin izanen da museoaren azpiegitura publikoko parte izan. Artelanak Iruñeko campuseko eraikin batean jarriko dira ikusgai, azken hilabeteotan negoziatu eta 2008ko apirilean sinatu den hitzarmen bati esker.

Nafarroako Unibertsitateak bere gain hartu du Huarteren bildumaren kudeaketaren eta eraikin bat eraikitzeke ardua; beraz, arrisku bat dago, ez ote den bilatzen finantzaketa publikoa museo berri hori eraiki eta kudeatzeko.

Nafarroako Unibertsitateak zergen arloan jasotzen duen tratamendua berrikusi behar da, diskriminaziozkoa baita gure erkidegoko beste hezkuntza entitate eta enpresentzat.

Hori dela eta, nafar guztien dirua arte-zentro pribatu bat sortzera bideratzeko balizko tentazioei aurrea hartuz, gure parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ez diezaion inolako laguntza publikorik eman Nafarroako Unibertsitateari Huarte familiaren arte garaikideko bilduma hartuko duen museoa abian jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du zerga arloan ondokoei ematen zaion tratamendua berrikus dezan: Nafarroako Unibertsitatea nahiz haren eraikin eta azpiegituren –hala hezkuntzako nola ikerketako eta prestazioen kudeaketako eraikin eta azpiegituren– jabetza duten merkataritza-enpresak (Inmudensa eta beste), fundazioak eta bestelako entitate juridikoak. Eta hori guztia bai foru ogasunari bai toki ogasunei, bereziki Iruñeko Udalari dagokienez.

Iruñean, 2008ko apirilaren 14an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, Libanon bizi diren errefuxiatu palestinarren egoerari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die, haien egoeraren kariaz, 1948an errefuxiatu bihurtu ziren palestinarrei, bai eta 1967an bihurtutakoei ere, harrezkero Libanoko, Jordaniako eta Siriako errefuxiatu-guneetan nahiz munduan zehar sakabanatuta bizi baitira, eta nazioarteko erkidegoari eskatzen dio nazioarteko zuzenbidea

errespetatu eta errespetaraz dezan palestinarren gatazkari dagokionez.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak Libanoko errefuxiatuei buruz Nazio Batuen Erakundeak emandako ebazpen guztiak bete daitezela eskatzen du.”

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Nafarroako ijito komunitatearen eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Parlamentuak Nafarroako ijito komunitatearen eguna ospatu nahi du, eta aitortzen du Nafarroako herritar multzo garrantzitsu bat ijitoen komunitateko kide dela. Bereko kultura zehatza duen komunitate horrek gainerako herritarrek dituzten eskubide eta betebeharrak berak ditu eta, 500 urteko bizikidetzaren ondoren, gero eta askotarikoagoa eta kulturantzagoa den gizarte aberrastan jarraitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak zainduko du egiaz betetzen direla komunitate hori gizarte bizitzako arlo desberdinetan integratzea eta normalizatzea laguntzen duten legeak.

3. Nafarroako Parlamentuak ijitoen elkarrekin egiten duten lana babesten du, ijito komunitatearen sustatzea eta gizartearen integratzea laguntzen baitu, eta hori onuragarria da herritar guztientzat.

4. Nafarroako Parlamentua ijito herriaren irudi ona eta egiazkoa zabaltzen lagunduko duten politikak sustatzearen alde dago, horrela gaur egun oraindik dirauten estereotipo eta aurreiritziak deuseztatzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak herritar guztiei dei egiten die ospakizun honekin lotuta antolatzen diren ekitaldi guztietan parte hartzera.”

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez gaitzesten baitira foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorreren aurkako eraso eta PSE-PSOEn Elgoibarko egoitzaren aurkako atentatua.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorreren aurkako eraso, eta bere elkartasuna eta babesa eskaintzen dizkio, hautatua izan zeneko hautes-zerrendari babesa eman zioten herritarrak ordezkatzeko eginkizuna askatasun osoz betetzen jarraitu ahal izan dezan.

Nafarroako Parlamentuak adierazten du ideiak libreki adierazteko askatasunaren aurkako indarkeria mota oro arbuiatzen duela, eta, gizarte demokratikoko aniztasunaren adierazpide diren

aldetik, ezberdintasun politikoezko errespetua aldeztu du. Hortaz, gizarte ia osoak biolentoak arbuiatzen ditu, gizartearen asmoa baita dagozkion eskubide demokratikoak askatasun osoz eta bakean baliatzea.

Nafarroako Parlamentuak orobat gaitzesten du PSE-PSOEn Elgoibarko egoitzaren aurka ETAK atzo eginiko atentatua: terroristek emandako erantzun irrazional eta basatia da, herritarrek gehien goz erabaki duten zuzenbide estatuan ezarritako bideak baliatuz haien ordezkari izatera iritsi diren aurkakoa”.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria

Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Galderaren testua

Nafarroako Parlamentuak testuliburuen finantzaketari buruzko legea onetsita, eta kontuan hartuta legea heldu den irailaren 1etik aurrera aplikatu behar dela, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Zer eredu garatu nahi du Hezkuntza Departamentuak, testuliburuen finantzaketari buruzko legean xedatutakoa gauzatze aldera?

Iruñean, 2008ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, 2008-2009 ikasturterako eskolatzeko prozesuari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, 2008-2009 ikasturterako eskolatzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Neska-mutikoen eskolatzek berebiziko garrantzia du Nafarroako familientzat. Ez da harritzekoa aurrematrikulazioa egin behar den bakoitzean eztabaida eta ika-mika sortzea eskolatzeari buruz eta eskolatzek gauzatzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz.

2008-2009 ikasturterako aurrematrikulazioa egiteko epean ere izan da polemikarik, eta,

hortaz, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Galderaren testua

Zer datu ateratzen da hezkuntza-etapa ezberdinetako eskolatzeko prozesutik?

Zenbat familia gelditu da seme-alabak lehen aukera gisa hautatutako ikastetxean matrikulatu ezinik? Zein izan dira hori horrela gertatzeko arrazoi nagusiak?

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik prozedura bat ezartzeko, prozesua garbiago izan dadin edo, behintzat, halako ika-mikak ahal den neurrian ekidin daitezkeen?

Iruñean, 2008ko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea garatu eta betetzeari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legea garatu eta betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Román Felones Morrás-ek, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen garapenari eta betetzeari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak 2002aren amaieran onetsi zuen Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen foru legea.

Aipatu legeko zioen azalpenean, Unescoren aginduei jarraikiz, honela definitzen da liburutegi publikoa: “erabiltzaileei mota guztietako jakintza eta informazioa ematen dien informazio gune lokala” eta “hezkuntza, kultura eta informaziorako indar bizia, bakea, ongizatea eta kulturen arteko elkarrizketa lortzeko eragile funtsezkoa”.

Legearen 22 artikuluetan zehatz-mehatz jasotzen dira liburutegien arloari dagozkion auzi guztiak, eta haren xedapenetan egungo liburutegiek egokitzeko duten epea, irakurketa publikoaren mapa egin beharra, zerbitzuen zorroa eta intereskoak diren beste zenbait kontu ezartzen dira.

Bestalde, Nafarroan gero eta etorkin gehiago egoteak –indarra hartzen ari den sektore berri horrek ikaskuntza-tresnen premia berezia du– eta PISA txostenak ulermenezko irakurketaren arloan beharrianak atzeman izanak berriz ere jartzen dute mahai gainean jarduketa eremu hori, Nafarroan azpiegitura sendoa eta historia luzea duena.

Bost urte baino zerbait gehiago iragan dira legea onetsi zenetik, eta ematen du egokia dela esku hartzea legearen betetze maila aztertzeko, ibilitako bidea eta hobe daitezkeen arloak zehaztea helburu.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Galderaren testua

Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen betetze mailari?

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakiteko nola bermatu behar duen Nafarroako Gobernuak oneoro eta zentro publiko guztietan metodo antisorgailuen eskaerari modu egokian erantzun ahalko zaiola.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko nola bermatu behar duen Nafarroako Gobernuak oneoro eta zentro publiko guztietan metodo antisorgailuen eskaerari modu egokian erantzun ahalko zaiola.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Azken egunotan bi kasu onartezin ezagutu ditugu, biak ere Iruñeko osasun zentro publikoetan gertatuak.

Bi kasu horietan, seme-alabak dituzten 35 eta 42 urte bitarteko bi emakumek hitzordua eskatua zuten umetoki barneko gailua –DIU izenez ezagutzen den antisorgailua– jartzeko. Gailua jartzeko egun egokienean jarri zieten hitzordua.

Ezarritako egunean osasun zentrorra joan ziren, eta han esan zieten ezin zietela gailua jarri, ez zegoelako halakorik egin zezakeen profesionalik, bertan zeuden guztiak kontzientzia-eragozleak zirelako eta ezin dutelako antisorgailurik ez jarri, ez halako kasurik artatu. Halatan, bi emakume horiek etxera itzuli behar izan zuten, eta hurrengo hilekoaren zain gelditu, ea egun horretan haiek artatzeko profesionalik dagoen ikusteko.

Nola bermatu behar du Nafarroako Gobernuak oneoro eta zentro publiko guztietan metodo antisorgailuen eskaerari modu egokian erantzun ahalko zaiola?

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Foru Komunitateko errepide sareko zenbait bidegurutzeren arriskua murrizteko Nafarroako Gobernuak dituen proiektuei buruzkoa.

JOSÉ M.ª VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M.ª Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Foru Komunitateko errepide sareko zenbait bidegurutzeren arriskua murrizteko Nafarroako Gobernuak dituen proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José M.ª Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galderaren zioa

Iragan apirilaren 16an istripu larri bat gertatu zen Sunbillan, N-121-A errepidetik herri horretara sartzeko biribilgune irekian hain zuzen, autobus

batek eta kamioi batek talka egitean. Leku horretatik ibilgailu asko igarotzen da egunero, eta puntu horretan lehenago ere gertatu izan dira istripu larriak; 2005eko azaroan, esaterako, emakume haurdun bat hil zen, iragan apirilaren 16an gertatutako istripuaren oso antzeko beste batean.

PSN-PSOEk behin eta berriro adierazi du konpondu beharko lirakeela foru erkidegoko errepide-sareko zenbait bidegurutzetan, bereziki biribilgune irekien edo biribilgune erdien bidez antolatutakoetan, sortzen diren arazoak. Gure ustez, hobe da biribilgune itxiak eraikitzea edo bestelako irtenbideak bilatzea, lurpeko pasabideak egitea esaterako, ahal den neurrian ekiditeko trafikoaren segurtasunerako hain arriskutsuak diren bidegurutze horien ugaritzea. Hori guztia dela eta, parlamentari honek jakin nahi du ea Foru Gobernuak zer asmo duen auzi honi buruz.

Galderaren testua

Nafarroako Gobernuak ba al du proiekturen bat, biribilgune itxiak eraikiz edo bestelako irtenbideen bidez Foru Komunitateko errepide-sareko zenbait bidegurutzeren arriskutsutasuna gutxitzeko? Proiekturik ez badu, zer irtenbide proposatzen du Herri Lan Departamentuak Sunbillako sarbidearen moduko bide-uneetan arriskutsutasuna desgerrarazteko?

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: José M.ª Vázquez Royo

Galdera, Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuko teknikariek eginiko “Gela osasungarriak, nerabe trebeak” izeneko materialaren argitalpen eta zabalkundeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun kontseilariak eta Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Osasun Departamentuko teknikariek lan garrantzitsu bat egin dute orain dela gutxi, DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzendua: Gela osasungarriak, nerabe trebeak. Jakin dugunez, material hori beste administrazio batek eskatu du, argitaratzeko.

Argi utzi nahi dugu administrazio publikoko profesionalak taxututako material hori gure erkidegoan argitaratu beharko litzatekeela, eta, beste administrazioen batek eskatuz gero, haren esku utzi.

Horregatik guztiagatik, ondoko galderari erantzutea eskatzen dut:

Nola bideratuko dute arestian aipatutako lan horren argitalpena eta zabalpena?

Osasun Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak ba al dute asmorik ados jarri eta materiala argitaratzeko?

Osasun Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak ba al dute asmorik beste administrazio batzuen esku uzteko, administrazioa estatukoa nahiz beste edozein izan, gure erkidegoko profesionalak DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat eginiko lan hori?

Iruñean, 2008ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko zein egoeratan dauden Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalekin Nafarroako Gobernua egiten ari den negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatze aldera.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zein egoeratan dauden Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalekin Nafarroako Gobernua egiten ari den negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko 0tik 3 urtera bitarteko haurrentzako eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Jakin dugunez, Nafarroako Gobernua negoziatzen ari da zenbait udalekin, 0tik 3 urtera bitarteko haur eskolen kudeaketa lagatzeko Nafarroako Gobernuaren menpeko udalei.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Zertan dira Nafarroako Gobernuaren eta Burlata, Corella, Lizarra eta Iruñeko udalen arteko negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren menpeko 0tik 3 urtera bitarteko haur eskolen kudeaketa tokian tokiko udalari lagatzeko?

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ubarroiek eta lertxunek eragindako arazoak konpontzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ubarroiek eta lertxunek eragindako arazoak konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean apirilaren 2an eginiko agerraldian, Departamentu horretako kontseilari Sanzberro andreak adierazi zuen, ibaien eta amuarrainen egoeraz ari zelarik, Nafarroako Gobernuak neurriak hartuko dituela lertxunen eta ubarroiaren arazoak konpontzeko.

Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zer neurri proposatzen ditu departamentuak, aipatu animaliek eragindako arazoak konpontzeko?

– Zenbat ubarroi eta lertxun dago gaur egun? Eman datuak urteen arabera bereizita.

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiek azientaren aurka eginiko erasoek sortutako arazoak konpontzeko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiek azientaren aurka eginiko erasoek sortutako arazoak konpontzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Ultzamako abeltzainek saien erasoak salatu dituzte azken aldian, bai eta Nafarroan saiak nabarmen ugaltu direla ere. Hori ikusita, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Ekainaren 2ko 607/1997 Foru Aginduan jasotzen diren laguntzez gain, departamentuak zer neurri planteatzen ditu saiek abereei eginiko erasoen arazoa konpontzeko?

Zenbat sai-bikote dago erroldatuta gaur egun Nafarroan? Eman datuak urteen arabera berezita.

Zer neurri planteatuko dira saien populazioa kontrolatzeko?

Iruñean, 2008ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai parlamentuko-taldeko kide denak, Nafarroako Legebiltzarreko araudiari men eginez, galdera egiten du, Kultura eta Turismo kontseilariak erantzun dezan.

– Zein da Marques de Rozalejo jauregiari Nafarroako Gobernuak emanen dion erabilera? Zein da gobernuak duen egitasmoa? Zein epetan egin nahi ditu jauregiaren moldaketa lanak?

Iruñean, 2008ko apirilaren 17an.

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Urtebete 47,00 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	